

AZKUE SARI BANAKETA. A maila.

Gazteok, gaur zeuek zarete protagonista, nahiz eta gurasoz, bitartekariz eta zaindariz inguratuta egon. Gaur, zeuek zarete protagonista irabazle suertatu zaretelako. Irabazteak, ordea, esan nahi du beste batek galdu duela, alegia, irabazle izateak esan nahi du galtzaile bat ere badagoela.

Halaxe delako beti. Batzuetan irabazi egiten da eta beste batzuetan galdu, baina, gogoratu, kontu honetan, beste gauza askotan bezalaxe, ekina dela bidea, hots, idaztea bera, irakurtzea bera, Literatura bera.

Izanak izan, gaur irabazle izatea egokitu zaizue, bai, eta hori ospatu beharra dago. Lan asko heldu zaigu esku artera eta hainbesteren artean ez da erraza izan onenak aukeratzea. Hala ere, lan hori zegokigun eran, saiatu egin gara eta hara hemen aukeraturikoei buruzko zertzelada batzuk:

NARRAZIOA

1. saria: ZABALETAREN AUTOBUSA. Eguneroko errealitatetik jasotako pertsonaia ondo landua, ikusi eta entzun egin daitekeena, testuan aurrera egin ahala. Umore eta gozotasun ondo erabiliak. Pertsonaia baten deskripzio bikaina.

2. saria: TXIMINIAKO USO ZURIA. Inguru hurbiletik (Zegamatik) abiatutako fikzioa genero poliziakoari atxikia. Trama txiki baina ondo eraikia, bukaeran ondo ixten dena.

3. saria: INDIANA JONES. Polita eta barregarria, ondo idatzia. Gazteen errealitate hurbiletik jasotako istorioa, txataren inguruan sortzen diren sorpresak agerian uzten dituena, umorez. Bukaera ona.

OLERKIA

1. saria: ZURETZAT. Hitz-jokoak, musikaltasuna, erritmoa, samurtasuna. Bukaera etenak aurreko erritmoa hausten du, kontraste eraginkorra sortuz.

2. saria: URTAROAK. Naturaren aldaerak era sinplez bezain samurrez kontatuta.

3. saria: MAITASUNA BETI EZ DA BERDINA. Maitasunari buruzko beste ikuspegi bat, poetaren eskarmentutik eraikia. Ohiko klitxeetatik ateratzeko intentzioa.

Amaitzeko, Literaturaren tiobiboan, neurri batean, zeuen kide ere banaizenez, hara hemen gaurko ekitaldirako zuzenean sorturiko berba batzuk, autobusean berridatziak eta olerki gisa antolatuak, bi gauza aldarrikatzeko.

Bat, idaztearen eta berridaztearen plazerra. Bi, poesia gehiagoren premia gure egunerokotasunean.

Ekina bera delako pausoa; ekina bera delako bidea.

Idatzi,

egunerokoa ordenatzeko,

ezkutukoari zukua ateratzeko,

agerikoari, gutxienez, birritan begiratzeko.

Irakurri,

egunari ordu bat gehitzeko,

orduari minutu bat luzatzeko,

minutuari hiru segundo eransteko.

Aditu, ikusitakoa gogoratzeko,

dastatutakoa berregiteko,

ukitutakoa birsentitzeko.

Idatzi eta irakurri,

irakurri eta idatzi,

zaren hori,

daukazun hori,

doakizun hori,

hori, guzti hori,

dimentsio anitzez

-etenik gabe-

jasotzeko

gordetzeko,

emateko.

Bilbon, 2009ko martxoaren 16an
Yolanda Arrieta